

Nafarkaria

• ostirala • 1998ko otsailaren 6a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Altsasu • Santa Agedako ospakizuna.

Agurne Oronoz • R.M. Azkue poesia sari irabazlearekin berriketan.

Hezeguneak

gutxi
sailkatuak
eta gaizki
zainduak

• LUIS AZANZA

Hezeguneen Nazioarteko II. Eguna berriki izan dela aitzakiatzat hartuz, herrialdeko hezeguneen sailkapena kaleratu berri du Gorosti Natur Elkarteak. Herrialdean dauden 61 hezeguneetatik zazpik bakarrik dute babes legala, eta ongi zainduak salbuespenak dira.

Altsasu •

Santa Ageda bete-betean

Kintoek eskean eman zuten atzo egun guztia, eta neskek eta mutilek nork bere aldetik bazkalduko dute egunotan

Iritsi dira santagedak, tradizio handiko festak. Aurten 80. urtean jaio ziren gazteek ospatuko dute, baina bihar adin guztietako kintoek egingen dituzte bazkariak.

SANTA AGEDA OSPATZEN DUTEN Sakanako gainontzeko herrietan ez bezala, Altsasun mutilek eta neskek aparte bazkaltzen dute. Neskak egun beren kasa antolatzen dituzte otorduak, eta bazkalondoan kintoekin kafea hartzera joaten dira. Bazkarien afera oraindik konpondu gabe dago, eta aurten ere orain dela 15 urteko eztabaidak sortu dira neska-mutilen artean.

Aurten bi bazkaritara gonbidatu dituzte neskak; orain dela hamar urte, berriz, neskak kafea hartzera besterik ez ziren joaten. Neska eta mutilendako adina leku izanzen zuen jatetxe falta, diru falta eta tradizioa gorde beharra... aitzakiak aitzakia, Altsasuko neska eta mutilen arteko ezberdintasunak eztabaida franko eragin dituzte azken 15 urteetan. Konponbidea erraza da batzuen ustetan, neskek mutilek adina eskubide dute bazkaritara joateko, baina herriko beste batzuen iduriz tradizioak «behar



Asteartean herrian etxez etxe bildutako diruarekin eta saldutako piperropilekin ordainduko dute bost egunetan izaten den festa. • ARTXIBOKOA

bezala» gorde behar dira. Beraz, dirudienez, poliki-poliki eta urte-tik urtera neskak partehartzet zabalagoa lortzen ari dira. Esaterako, azken urteotan neskek Santa Ageda bezperan partehartzet berezia berreskuratu dute. Arratsaldean diru eskean abestiak kantatuz abiatzen dira herriko kaleetan. Gainera, gaur egun neskatoek beren kasa bazkaltzen dute elkarrekin jai giroan.

Aurreko hilabeteetako presta-

kizunak bukatuak, bete-betean iritsi zaizkigu santagedak. Atzo egin zuten diru bilketari esker, ondorengo egunak primeran pasatu ahal izanzen dituzte. Eskea goiz-goizetik hasi zen eta kintoen adinako neskatoek 40ren bat piperropil eskaini zizkieten. Lehen eta bigarren erregeak, txistulariak eta zahatoa eramaten duen gaztearekin batera -Enero Mendiluze- neskatoen etxeetara joaten dira piperropilak jasotze-

ra. Etxez etxe eta kalean jasotako dirua gehi piperropilen salmentarekin ateratakoarekin ordainduko dute bost egunetako antolakuntza guztia. Ezken urteotan batez beste 2,5 milioi pezeta jaso izan dituzte eguneko eskean. Diru horrekin guztiarekin egunero bazkariak ordaintzeaz gain, festen antolakuntza guztia ordaintzen dute.

Batez beste, 80.000 pezeta balio dute kintoen jantziek.

Garestiena haxe izaten da: bordatutako zapiak eta zintak. Mutilek lau zapi jantzen dituzte: bi bularretan gurutzaturik eta besteak lepoan zintzilik. Azken bi horiek bordatuak izaten dira (abizenen armarrarekin bat eta Santa Agedari buruzko leloarekin besteak). Bestalde, kintoek zinta edergarriekin apainduriko gorosti makila eramaten dute otsailaren 5eko diru bilketan. Azkenik, prakak eta atorra zuria, zatak eta albarkak, txapela eta kaikua.

Astelehenera arte arratsaldero zortzikoa dantzatzen ikusteko parada izanzen da Altsasuko Foruen plazan. Aurtengo kintoek, gainera, plaza berria estreinatu dute. Plaza, berez, urtarilaren 30erako bukatu behar zuten, baina herenegun oraindik lanean ari ziren, jo eta ke, plaza garaiz amaitu ahal izateko.

83ko kintoek zilarrezko ezteiak ospatu zituzten atzo, eta 83ko kintoen erregeak, Alejandro de Miguelek, zortzikoa dantzatu zuen plazan aurtengo kintoek zortzikoa inauguratu eta gero. Aurtengo kintoek inoiz baino lehenago ekin diote dantzak ikasteari. Altsasuko zortzikoaren irakasle Luis Mari Lopez de Goikotxearen iduriz, «jotak eta porrusaldak nahiko trakets dantzatzen dituztelako aurten lehenago hasi gara entseguekin, eta zortzikoarekin hasi aurretik jotak eta porrusaldak dantzatzen jardun dugu». Beraz, aurtengo kintoak trebezia handiarekin dantzatzen ikusi ahal izanen ditugu, ohikoa baino bi hilebete lehenago (urrian) hasi baitziren entseguekin.

→ Amaia Amilibia

denbora pasa

XAMAR



A benduaren hondarrean La Garraldina elkartearen batzarrea izan ginduen herrian. La Garraldina dugu errota zaharraren soziedade. Joan den mendean sortu zelarik etxe guziek zuten parte, baina urteak joan, urteak etorri anitzek saldu zuten berea.

Denbora luzez errota Irati ugaldearen aldean zen kokaturik naski, uraren indarrak baliatuzko. Elekrika heldu zelarik herrian bertan zuten eman. Kontua da Olaldeko zentral elektrika eraiki zutelarik, gaur errota zaharraren lurrak erabili zituztela ubidearen egiteko. Honen truk zentralak mila kilobatio zemeit ematen zako errota berriari kitorik, eta honek parte bat

La Garraldina

gastatzen zuen bere lanetan, gainerakoa herriari saldu egiten zitzaizlarik.

Abantxu hamabortz urte, langilerik faltan errota ertsu zen, eta kilobatio guztiak herriari saltzen hasi.

Egun Garraldan kontsumitzen den elektrizitatea La Garraldinarena da, eta honek ematen dituen sotsak sozioen artean (etxeak, ez pertsonak) banatzen dira, afari ederraren egiteaz landa.

Elebide izan zen afarian, xahar eta gazteagoak bildurik, zer bilakatu den urtez urte errotako partaide izatea. Garai batez lan gehiago izatea beizik ez zen -errotako

auzolanak-. Orai, guhaurek ez dugula ja egin eta errota sortu zen helburuarendako ertsirik dagoela, orai ematen du sos zemeit urteko.

Bagaza hogeita batgarren mendeari buruz, eta guziz ahaldu diren enpresen aroan (energi kontutan batez ere) xakin ezazie lberdrolaz gain La Garraldina ere badela elektriketean. Ez gira bakarrak gisa hontako sozietateei eutsiz, baten bat gehiago bai baita oino bazterretan, Gareban konparazione. Derradan ere gu fier girela mantendu dugulako tentazionetik urrun, konpainia handiak beti entseatu beitera «anakronismo» hauen suntsitzen, sos anitz erabiliz amu gisa... baina noiz artio iraunen?

Lekunberri

Arbasoak ezagutzeko aukera Mitxausean

«ZURE ARBASOAK EZAGUTU» izeneko ekimena jarri du abian Lekunberriko Mitxausean kultur etxeak. Familiako xehetasunak (arbasoen izenak, lanbideak, jaiotze datak...) eskainiko zaizkie hori eskatzen duten larraundar guztiei. Inma Etxarriren ideia izan da, eta badirudi harrera ezin hobe izan duela.

Etkez etxe, eskutitz bana banatu dute. Eskutitzak kaleratu eta handik bi egunetara, hamabost ziren Mitxausean jasotako eskariak. Beraz, lana pilatzen hasi zaito Inma Etxarriri. Dena den, ez zaio axola: «Gustura egiten dudana da artxi-boetan informazioa bilatzea. Hain zuzen ere, nire arbasoen buruzko xehetasunen bila nenbela bururatu zitzaidan kanpaina hau martxan jartzeko ideia» dio. Larraungo udaletxeko artxibategian 1800. urtetik honako informazioa dago. Mitxauseaneko langilearen ustetan, dirudiena baino lan errazagoa da. «Zorionez, dena txukun sailkatu dago, eta kaligrafia ere oso txukuna da, erraz ulertzen dena, eta hori ez da oso arrunta horrelako dokumentu zaharretan», adierazi du. Kultur etxeko arduradunaren ustetan, nahikoa informazioa atera daiteke udaletxeko artxibategietatik, baina zerbait gehiago beharko balitz prest egongo litzateke elizakoan ere begiratzeko.

Badirudi Nafarroa guztian beste inon ez dela burutu horrelako ekimenik. Baina, larraundarren artean izandako arrakasta ikusirik, beharbada beste nonbaiten ere animatuko dira horrelakoren bat abian jartzera.

→ Urko Aristi

Tafalla



● GORKA LABAT

Otsaileko feriak bihartik aurrera

Tafalla otsaileko feriak ospatuko ditu asteburuan, eta astelehenean ganadu feria sonatua egingo dute. Bihar artisautza eta makina erakusketak izango dira azokatoki nagusian. Cortesko plazan, berriz, era guztietako landare eta lore sortak erosi ahal izango dira. Sabela betetzeko hobe Nafarroa plazara hurbiltzea, han jarriko baitute elikagaien azoka. *El Empuje* peñak antolatutako zerri zozketa ospetsua etzi egingo dute, arratsaldeko ordubietan, baina lehenago La Tafallesa musika bandak alaituko du Nafarroa plaza. Txikienek Suzko Zezenaren aurrean korrika ibiltzeko parada izango dute igandean, 20:00etatik aurrera. Jai giroak segida izango du astelehenean, Nafarroako txoko guztietako jendea bilduko duen Ganadu Ferian.

Tutera

Udalak indultua eskatu du espetxeratutako bi funtzionario ohirentzat

MANUEL CLAVERO ETA ISABEL FERNANDEZ funtzionario ohientzat indultua eskatzea erabaki zuen Tutera Udalak astelehenean bilkuran. Tuterako Udalatzaindako langile izandakoak diru publikoa bidegabeki erabiltzeagatik zigortu zituzten iaz. Epailiek frogatutaz jo zuten Claverok eta Fernandezek trafiko isunetako dirua patrikaratu egiten zutela, eta hiruna urteko kartzela zigorra jarri zieten horregatik. Claverok

joan zen astean sartu zuten Iruñeko kartzelan, eta Fernandez Langraizkoan.

Espainiako Justizia Ministerioari indultua eskatzeko proposamenak UPN, PSOE, Batzarre eta IU alderdietako zinegotzien aldeko botoa jaso zuen. Kontra, berriz, Union Tudelanako zinegotziek besterik ez zuten bozkatu. Indultuaren alde agertu ziren alderdiek funtzionario ohiek dagoneko nahikoa zigor jaso dutela argudiatu zuten; haien iduriko, lanpostua galdu izana eta ostutako dirua itzuli behar izatea aski da, eta udaletxeko langile izandakoak kartzelan egoteak ez dio inori egingo mesede. Aitzitik, Claverori eta Fernandezi eta haien senideei sofrimendua baino ez diela gehituko nabarmendu zuten. UTko zinegotzi Jose Antonio Perez Sola ez zen ados agertu. Haren iritziz, funtzionario ohiek ez dute ezer egin indultua merezi izateko.

herri aldizkariak

Edurne Elizondo

Lanbide Heziketaz eta irratiaz

Guaixe Sakanako hilabetezko azken zenbakia goi mailako Lanbide Heziketak eskualde horretan dituen arazoak jaso ditu bere orrialdeetan. Olatz Irizar eta Amaia Amilibiak idatzi artikularen bidez: «Hezkuntza Sailaren proposamena egunkarietan agertu da azkenaldian eta gure eskualdean heziketarekin zer ikusirik duten talde eta hainbat erakunde asaldatu dira proposamenaren berri jakin dutenean. Beraren arabera Zurgintza Sakanatik kanpo geldituko litzateke besteak beste. Hezkuntza Sailekoek Sakanako Heziketa Batzordearekin hurrengo hilabeteotan elkartzeko boronda-

tea agertu dute, proposamenaren zehaztasunak eta egokiera finkatzeko».

Gaiari buruz Sakanako hainbat lagun eta elkarte duten iritzia jaso du **Guaixe**-ren artikulua. Sakanako Enpresarien Elkartearen ustez, adibidez, Departamentuaren egitasmoa ez dator bat eskualdeko beharrek: «Batetik, ez dute goi mailako zikloko ezarpena aurreikusten, eta, horren ondorioz, ikasketak luzatu nahi dituzten ikasleek aukera arraz murrizten du. Eta bestetik, aurreikusi dituzten ziklo ertainak ez datoz bat Sakanak behar dituen heziketa moduloekin».

Imotz, Basaburua eta Ultzamaldeko Pu-

lunpe aldizkariaren azken zenbakiak, bestalde, eskualdean Ametza elkarteak jarri nahi duen irratia buruzko artikulua jasotzen du, eta aurrera doala azpimarratu: «Lizentzia jaso bezain agudo, Batzorde Mistoa (Udalak eta Ametza) bilduko da, aurtengo aurrekontuak zehaztu eta materiala erosten hasteko. Lanak lehenbaitesten hasteko asmoa dugu. Basaburuko Udaletxeko goiko ganbaran. Mendian paratu beharreko antena ere modu erreza eta merkeago batean lortzeko modua aztertzen ari gara», azpimarratu dute Ametzakoek *Pulunpe*-ko orrialdeetan.

Donesaturdiko

oilarra lumatzen
Juan Kruz Lakasta

Joseba

Josebak 22 urte ditu, iruindarra da, eta desesperaturik dago. Joan den astearteko ordu txikietan, desesperazioz beteriko barruak hustu nahirik, irratira deitu zuen, Joseba bezalako entzule desesperatuen deiak hartzen dituen saio batera. Bizitzak gogor jipoitu duenaren ahots urratuaz, bere bizitza gogorra kontatu zuen. Alkoholiko eta ludopata ohia, Joseba egun zulorik ilunenean hondoratzen ari da: abertzale bilakatzeko ari da. Betidanik euskaldun sentitu izan da, baina orain larriagoa da: euskaldunen artean euskaldunena sentitzen da, abertzaleena.

Amodioa da ezbehar horren sorburua. Joseba, duela urtebete, klasekide batekin ateratzen hasi zen. Josebak Jaione deitzen zuen, baina ez zen Jaione. Noelia zuen izena, eta espainiarra zen. Josebaren lehen harremana izan zen, eta lehen harreman guztiak bezala, xamurra, beroa, zoragarria izan zen, burutu zen arte. Duela bi hilabete, Noeliak harremana moztea erabaki zuen -seguru asko Jaione bezalako izen txepel bat entzuteaz nazkatuta-. Erabaki horrek Joseba amorratu du, eta amorratio horrek Joseba Noelia espainiarraren herrikide guztiak gorrotatzera eramane du, espainiar guztiak gorrotatzera, eta inoiz baino euskaldunago, abertzaleago sentitzera.

Azken bi hilabeteotan, Joseba behin baino gehiagotan saiatu da gorrotoaren, abertzaletasunaren zulo beltzetik irteerari, baina alferrik. Ezin izan du atera, eta irratian, lotsatuta, ahopeka aitortu zuenez, hondo jo du, bortizkeriazale bilakatu da, bortitz. Unibertsitateko klasean Noelia ez ezik beste bi espainiar gehiago ere badaude, eta Josebak, sentitzen duen gorrotoak itsututa, haiekin erokeriaren bat egin dezakeela uste du.

Esatariak Josebari lasai egoteko esan zion, arazo bat gainditzeko egin beharreko lehen urratsa arazo hori onartzea eta besteei esatea zela, eta horixe egiten ari zela. Nik ere arazo bat daukat: txoko honetan errealitatean ehunetik ehunetan oinarriturik idatzi dutan bigarren zutabea da hau. Biak ere, irudimenean oinarriturik idatzi ditudan guztiak baino surrealismoak dira. Errealitateak gailentzen nau. ●

Hezeguneen tratamendu ezberdin

Nafarroako hegaztien %40 guneotara lotuak diren arren, alde handiak daude batetik bestera

Migrazioan eta kumeak izateko garaian hegaztiekin erabiltzen dituzten gune garrantzitsuak dira hezeguneak. Horren adierazle da Nafarroako hegaztien %40 baino gehiago tokiotan bizi direla. Dena den, legeak ez ditu berdin sailkatzen, eta batetik bestera alde handiak daude.

J Udaberria hurbiltzen ari den heinean, hezeguneei berebiziko garrantzia hartzen dute. Negua hegoaldeko toki epeletan igaro eta gero, hegaztien pasa eta kumeak izateko garaia iristen da, eta guneotan hegazti, anfibio eta insektuen soinuak nahasten hasiak dira. Nafarroako, Gorosti Natur Zientzia Elkartean ekimena dela medio, Hezeguneei II. Nazioarteko Eguna egin zuen joan den astelehenean. Hori aitzakiatzat hartuz, elkarkeak Nafarroako hezeguneei berri jaso duen txostena kaleratu du.

1971n Ramsar-en (Iran) egindako bilera batean adostutako hitzarmenean ezarri ziren nazioartean hezeguneak babesteko oinarriak. Araudi horretan herrialdeko bi hezegune bildu dira: Pitillasko aintzira eta Vianako Las Cañas uharka. Nolanahi ere, Gorostik egindako sailkapenean garrantzia duten beste hezegune asko jaso dira. Naturgune horien garrantziaz ohartarazteko, Gorostik datu bat aipatu du. Urtero guneotan habia jartzen duten espezieak batez beste hogeita hamarrera iristen ez badira ere, herrialdeko hegaztien %40tik gora hezeguneei inguruan edo hari loturik bizi dela dio naturzaleen elkarkeak. Aldi berean, Nafarroako biodibertsitatea gordetzeko funtsezko ekosistema direla ere azpimarratu du.

61 hezegune

Gorostik egindako sailkapenaren arabera, 61 hezegune, dela gizakiak artifizialki sortuak dela naturak berak eginak, aurki daitezke Foru Erki-

degoan. Horietatik gehienak, 31 hain zuzen ere, urmaelak eta aintzirak dira. Badira 16 uharka ere, 12 ibai zati eta 2 arroz-soro. Dena den, Gorostik dioenez, hezegune batetik bestera alde handiak daude. Alfonso Llamas Gorosti Natur Zientzia Elkarteko biologoaren arabera, orokorrean gaur egungo egoeraz hitz egitea zaila da. «Ez da erraza guztien egoera zehaztea. Batzuk ongi zainduak daude; beste batzuk, aldiz, hondatzen ari dira. Dena den, ongi zainduak eta babestuak salbuespen dira», nabarmendu du.

Biologoak dioenez, Pitillasko aintzira eta Vianako Las Cañas uharka dira hobekien daudenak, nazioarteko legediak ez ezik Nafarroako Gobernuaren araudiak ere babesten dituelako. Aldiz, badira aberatsak izan arren penagarri dauden guneak. Horren lekuko dira Iruñerriko ekosistemaren «erlikia» izan zitezkeen Lozako urmaela eta Izako putzua. «Iza, eta batez ere Loza, Iruñerriko ekosistemaren adibide izan litezke. Lozako harizti hezeak oso garrantzitsuak dira klima mediterraneo eta atlantikoaren arteko mugan daudelako,

eta hegaztien migrazioarako ere bai». Nafarroan desagertzeko arriskuan dauden hamazazpi hegaztiak bat, txori zezena, Lozan ikusi izan dute eta ez da aintzat hartu habiak jartzeko garaian.

Nafarroako Gobernuak joan den urtean egindako hezeguneei sailkapenaren arabera, Lozako urmaelak hamar hektarea zituen, nahiz eta beste

ikerketak batzuek hektarea horiek hirukoiztu ere egin dituzten. Egun, urez husteko egindako drenatze erretanak direla medio, gero eta ur gutxiago du, handitu egin zaizkiolako. Gainera, hariztia desagertu da; beraz, haren egoera oso txarra da. Hori gutxi balitz, Gobernuak ez ditu aintzat hartu hainbatetan talde ekologisten eta Gorostiren iritzia, Lozak duen garrantziaz ohartarazi dutenean. Hezeguneak berezi garrantzitsuak hegaztientzako badira ere, anfibio eta landare asko aurki daitezke. «Lehortu duten hezegunea da. Hegaztientzat ez ezik, oso inportantea da anfibio eta landareentzat ere. Orkideo espezie ugari eta hiru mota ostargi-belar badira. Bestalde, anfibioak ahaztuak daude eta askotan jazarriak. Nafarroan lau espezie ditugu, pribilegiatuak gara, eta Loza eta Iza garrantzitsuak dira baso-igela janzkariarentzako», gaineratu du Llamasek.

Hezeguneak, gehienbat, gizakiaren eraginaren poderioz aldatzen dira eta haien interesekin talka egiten dute. Nafarroako hezeguneak Ebroko Deltaren inguruan biltzen dira eta oso ekosistema

llasko aintzira lekuko. Gainera, gizakiaren eskuhartzea nabarmena izan den batzuetan onerako izan da. Besteak beste, Arguedasen dauden bi arroz-soroak eta Bardeetan ganaduarentzako eraikitako Zapata eta Cortina urmael artifizialak atsedean toki aproposak dira negua herrialdean igoarazten duten hegaztientzat.

Garrantzitsunea, Pitillaskoa

Pitillasko aintzira, Nafarroako garrantzitsuenaz ez ezik, Euskal Herrian dauden artean esanguratsuenetakoa da. Gizakiaren aldetik pairatu izan duen arren, naturala da. 216 hektareako estepako hezegunea da eta jatorri endorreiko du. Javier Erdoziain da bertako zaindaria eta bisitariel hango berri emateaz arduratzen dena. Neguan apalago egon bada ere, udaberria hur-

konplikatuak dituzte. Hala ere, Llamas en ustez, nahi izanez gero, bien arteko oreka lortzea ez da hain zaila. Vianako Las Cañas uharka eta Pitillasko aintzira lekuko. Gainera, gizakiaren eskuhartzea nabarmena izan den batzuetan onerako izan da. Besteak beste, Arguedasen dauden bi arroz-soroak eta Bardeetan ganaduarentzako eraikitako Zapata eta Cortina urmael artifizialak atsedean toki aproposak dira negua herrialdean igoarazten duten hegaztientzat.

bildu ahala Pitillasko aintziran gero eta gehiago zorrotzu behar da belarria etortzen hasiak diren biztanle berriak sumatzeko.

Kasik egunero kontrolatu behar du hara gerturatu den fauna.

Afrikatik edo Espainiako hegoaldeetatik datozen hegaztien pasa hasi da, eta dagoeneko batzuk habiak egiten hasiak dira: lertxun hauskara, zingira-mirota, txilinporta lepo-beltza, murgila. Gehienak atsedean hartu eta gero iparraldera abiatuko dira. Nolanahi ere, badira negua pasatzen egon direnak eta habia jarri, kumeak kartzatu eta alde eginen dutenak. Hori egiten dute aintziran urte sasoi honetan egoten diren zazpi-zortzi ahate motek. Pitillasen ureko berrogeita hamar hegazti espezieetik gora bizi dira, eta urtean beste ehunen bat ikus daitezke pasan.

Nazioarteko legeak eta Nafarroakoak naturgune babestu egin duten arren, gizakiaren interesen eta aintziran biodibertsitatearen arteko oreka zaila da. Ireki berri duten behatokiak, gainera, bisitari kopurua igoko du. «Hezegune batean garai okerrean udaberria da, orduan kumeak jartzen hasten direlako. Urtero habia asko galtzen dira, aintzirara hurbildu hutsarekin hegazti asko izutzen baitira eta habia uzten baitute».

«Behatokia zabaldu den arren, beti izan dira bisitariak, baina orain etortzen hasiko den guztiarekin ikusiko dugu nola moldatu», azaldu du zaindaria.

Lozako urmaelaren egoera tamalgarria da, drenatze erretenak direla eta urik gabe gelditzen ari baita. ● LUIS AZANZA

Alfonso Llamas

«Ez da erraza hezegune guztien egoera zehaztea. Batzuk ongi zainduak dauden bitartean, beste batzuk izorratzen ari dira. Dena den, ongi zainduak eta babestuak salbuespena dira»

Definizio juridiko falta

Gorostik egindako sailkapenean 61 hezegune agertzen badira ere, Nafarroako Gobernuak joan den urtean kaleratutako herrialdeko hezeguneei zerrendan hogeita hiru besterik ez dira azaltzen. Sailkatuak hogeita hiru badira ere, legeak zazpi bakarrik babesten ditu erre-serba natural moduan: Pitillasko aintzira, El Juncal eta Agua Salada uharkak, El Pulguer, Las Cañas eta Escudera urmaela eta Dos Reinos aintzira. Gorostiren irudikoz, sailkapena «pobre» da. «Hegaztientzat bakarrik ona dena babesten da, eta ez dira kontuan hartzen hezeguneei oso garrantzitsuak diren landareak, ez eta bestelako fauna ere».

Era berean, egin den zerrenda murrizta kritikatu du Gorostik. «Inbentarioa egiterakoan, gainera, ez dira aintzat hartu hegaztientzat oso inportanteak diren

hainbat paraje: ibai zatiak, hesiak, turberak eta zohikaztegiak, hain zuzen ere. Legeak babesten dituen arren, ez dago hezeguneei definizio juridikorik, eta horregatik gertatzen dira hain alde nabarmenak. «Definizio juridikoak berak teknikoak behar luke, hori gabe ezin da kudeaketa eta erabiltzen planik egin eta asko hondatu egiten dira. Hezeguneak babesten dituen dekretua, Pitillaskoari eta Vianakoari dagokienez izan ezik, ez da zehatza, eta ondorioz ezin da lurraldearen antolatetarik egin», dio Llamasek.

Gobernuak sailkapena irekia dela esaten duen arren, katalogo «oso eta serioa» ez dago egin eta gutxi sartu dira. «Egin den sailkapena motz gelditu da babesean. Hegaztientzat garrantzitsuak diren hezeguneei sailkapen txiki bat litzateke, eta ez sailkapen osoa», bukatu du.

Baina Pitillasen ez dira bakarrik hegaztiak lekutzen. Teleobjetibotik azkar begiratu gero, basurdeak, azierak, azkonarrak, untziak eta erbiak ere ikusten dira, eta belarria adi jarritz gero apo lasterkariaren, pintodunaren, igel arruntaren korroak insektuen gergaldien soinuekin nahasko dira. «Hemen belarriarekin egiten da lan. Hogei soinu ezberdintzen ditut. Beraz, ekosistema aberats hori ongi mantentzeko kontu handiarekin ibili behar izaten da», gaineratu du. Dena den, Erdoziainek dioenez, bisitariak oharkabea egiten du gehienetan kalte; larriagoa litzateke isilpeko ehiztari baten eragina.

«Ez dutuko ehizarik ez da egiten, ehiztaria asko arriskatuko litzatekeelako. Gutxienean da basurdea edo ahatea akatzea. Araza da ondoren sor dezakeen saltsa. Kumeak jartzen ari direnean, tiro hotz batek espezie bakar batzuentzako 100 milioi pezetako galera (4 milioi libera) ekarriko luke», azpimarratu du zaindaria.

→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Internet-en harrobia: 1505.eko 'Gurutze Sainduaren Othoitza'

'Gurutze sainduaren othoitza' Dabid honen aitak, Hegoaldeko etorkina ipar-Quebecen, Iparraldeko euskaldun batengandik jaso zuen mende honen erdialdean



ZORIONEKO INTERNET HARTAN bidailari murgiltzen direnek aunitz gauza idoro dezaketelako ziur gaude, goxo batzuk, ballagarri beste, inozo asko, mingarri ugari. Euskara ez da libro teknologietatik, beharrik bada, eta marin el informatikoen hizkuntza nahiz mintzagai badaukagu bihurturik pantailaren bestaldean Tubalen mintzaira zaharra. Arestian, Xalbador dendaundian xinaurri diharduen Musde Aranburuk Dabid Maritoren quebecois-uskaldun batek 1997.eko maiatzaren 10ean davidm@universe.com helbidetik basque-l@cunyvm.cuny.edu buzaira aireratu otoiiza helarazi zigun. Berari eskerrak eta osagarri. Berrogei lerrotako Gurutze sainduaren othoitza Dabid honen aitak, Hegoaldeko etorkina ipar-Quebecen eta eraikuntzan langile zegoela, Iparraldeko euskaldun batengandik jaso zuen mende honen erdialdean: *the following basque prayer was told to my father at that time by a french basque whose name I didn't get correctly from my father but who has since returned to France and who occasionally writes for Herria according to my father. Arras zaharra delako ustea eta transkripzio akatsak bereak bakarrik direla aitortu ostean, galdera luzatzen digu: Any body elee out there know its origins?*

Datazioari dagokionez bezanbatean bederen, dudarik ez dago: Othoitza hau pausatua izana de 1505ean Jesu-cristoren tombaren gainean eta Alta Sainduaz igorrian Charles Emperadoreari Juan seneari Saint-Michel erat igorriak siron etsaisen guardia egiterat. Domaia perfektuegia



baiza. Ezin uka ordea, asma-tzailearen gustu ona, grazia, eta idurimen gatz piperduna ere, pasarte zoragarriak baita-karzkigu: Othoitza hau egun gusiez egiten duena abertitua isnaen da hiru egun aitsinetik bere herioseko orenaz (...) Nork ere irakurtuko baitu edo irakurtson adituko edo bere gainean karreatuko baitu, es da suprituki hilen, ez da ithoko, ez erreko, ez posoindatukok, etsaien artera ez erroriko, ez batailetan bentsutua isnanean.

Nor ere othoitza hau bere gainean karrelatzen baitu beirratua izanean da erortzeko minetik. Noiz eta ere ikusiko bitu norbait gaitz hortaz joa transa zozo othoitza hau eta jeikik da alegerak. Othoitza hau bertsentsat egiten duean benedikatu du dio Yafinko yaunak eta huntaz trufatuko denak prententsia eginean du.

Othoitza hau etche batean pausatua denian bergiratu izanea da ortsitik aire gaichtotiko.

Edozein modutan ere, eta Interneten untziratzen ez garenok testu poltit hau irakurtzeko aukera gal ez dezagun, hona orain arte ekarri ez dugun hasierako lerroak, gutxispenik ere merezi ez dutenak bestalde, hain dago idatzia lortua: 'Incarnasionekeo gurutze Saindua Yainko gusis botheretsua gure bekatu gussiensat arbola partikularren gainean heriotsea pairatu dusuna gure gatik, Isan Saite ni baithan. Jesu-Cristoren gurutze saindua isan sasu pietate nitas / Jesu-cristoren gurutze sandua isan sasu pietate gutas / Jesu-

cristoren gurutze saindua isan saite ene espereantza / Jesu-cristoren gurutze saindua urrun bitza nitarik orma zorrotz gusiak / Jesu-cristoren gurutze saindua iheru asu ni ganat ongia / Jesu-cristoren gurutze saindua egiazu arribera nadien sabba mendiko portura / Jesu-cristoren gurutze saindua nitarik heriotse kalpegusiak.

Jesu-cristoren gurutze saindua adora desagun bethi jesusen gurutze saindua / Jesu-cristoren gurutze saindua adora desagun bethi Jesusen gurutze saindua / Jesu-cristoren gurutze saindua begira nesasu gorputseko kolpe gusietarrik.

Jesus Nasaretekoa egisu ispiritu gainto esin ikuz desadonak ihes-egin desan nitarik menderen mendetan alabiz. Jesus odol presiartuaren haren incarnasionearen oheretan zoinak seguratzan ahal baigitu bisetse eternahehat, Jesus-cristo Eguberri eganean sortu eta ortsilare Sainduz hil isan de besan egia.

etorri ahal ean

Patziku Perurena



Alboka kontuk

LEON BILBAO, ALBOKARI bizkaitarra, hil egin zela aditu nuen orain zazpi urte, eta hala beharrek gauza asko ekarri gogora. Albokari onskoa ezezik, Arratia aldeko azken albokagilea baigenuen. Behiala, Mondrago-eko Alekoop lantegian ezagutu nuen Leonen semeetariko bat. Izi polita, arratziar asko ezezik! Hamaika adarjotze egina, Arrasate alde hartan ikasle ginela, napar kaxkarron bizkarretik. Halare, beti lagun izaten ginen. Ikasteko baino gehiago, etxean izateko eta albokaren trikimainak ezagutzeko, eskatu nion bat, eta baita ekarri ere abudo. Lardaxkan hasi, eta ikasi ere bai, zerozer, baina gero, etxeko sarreran, han gelditu zen mutu, paretean zintzilik.

Handik hurrena, Luis Fagoaga leitzarrak albokari buruz egindako idazlan baten berri izan nuen. Honela dio sarrerako pasarte batek: *...con motivo del VI Concurso de Micología celebrado en Leiza, me encontré con Don Silvestre Elezcano, constructor artesano de este instrumento. Uno de los festejos realizados en Leiza, con motivo de este concurso, fue el de Txilibrin eta Balbino. Txilibrin es un verdadero artista tocando la alboka y el acordeón.*

Nik, bertatik bertara, Leon eta Maurizari esker aditu nuen aurreneko aldiz alboka, mutikotan Leitzako dantzariekin Debara joan nintzen Dantzari Egun batean, eta geroztik askotan, hainbeste folk talde euskaldun sortu direnetik.

Hurreneko batean, R. M. Azkueren kantutegi ederrean, Parisko kalerik luzeena mando gainean alboka joaz zeharkatu zuen arratziar haren ixtorioa leitu nuen, honako kanta mitiko hau tarteko zuela:

Goizean Parisen, gabeen Parisen, Au da Parisko kaleen luzea! Auxe kale au pasata baneuko Atzeko mando gorri au neurea! Izerdi patsetan,

Alboka otsetan Zazpi legoa luze dan kalea, Zazpi legoak eginda baneuko Atzeko mando gorri au neurea!

Kanta horren doinua omen da, usuarioz, albokari hasiberriak aurreneko ikasi behar izaten duena.

Xabier Azurmendik, Atzeko Zegama liburuan, *Cara al Sol*-en sortzaile izandako Joanito Telleriaz ari dela, Aizpurutxiki albokaria aipatzen du, eta honen doinu zaharren plagioak nabari ote diren hartan. Nork esan? Beste pasarte batean, berriz, hala jaso du: *«Etxe berriri tellatue ematen tzikonen, trapalea eiten tzan, afari on bat. Festa on! albokoa» re esaten tzikon, afal ondon albokoa joz dantz eiten tzalakoa.* Leitzaldeen, ordea, edozein tratu itekoa bi alderdiek egiten duten otordutxoari deitzen zaio endemas albokoa.

Eta J. M. Iribarrenek, honela argitzen du, hitz honen sorrera: *«ali ala»* delakoak *«alifara»* aragoiarraren sorrera arabiar berbera du, hasieran tratua itekoa egindako gonbitte edo otordutxo izatetik, gero lagunarteko edozein otordu izendatzera iragoa. Zuzenbide islamikoan, kontratu oro hobetzeko errotia zen *hali-hala* delakoa, eta Zaragozako moroengandik hartua, bizi bizirik iraun zuen Tuterako albarrian. Katedraleko artxiboan, Santxo Jakitunaren garaiko (XII) hamaika tratu jasotzen da, eta denetan *«Pactata sunt pretium et hali-hala»* esaten da. Baina, Nafarroako beste eskualdetan, Gaztelako gisara, *alboroque* hitza erabiltzen da, arabiarren *alburuc* delakotik sortua.

Euskaldunok albokoa, alboka, albokari, hitzak moroengandik hartuak ditugu, beraz, musika tresna eta jotzeko usarioa bezalaxe. Holako zenbat mito, euskaltasun arkaiko birjin baten gorantzian. Inozente egunean asmatua dirudi gure historiak oraino, urteko beste 364 egunen argi puxken zai.

Ziria

• Motxorrosolo •

Gorraitz-Ekai

ARKEOLOGIA, DENBORAN MUGARIK EZ DUEN ZIENTZIA. MENDE HONEN HASIERAKO Irati enpresak Ekai ASERRADERO auzoa lekuko. Duela bost urte ondare horren kontserbaziorako plana egin zen, bistan denez, gauzatu ez den plana, egun arras zafaturik dago puntako enpresa izan zena, iragan hurbilaren berri izateko parada ezin hobea eskaintzen zuena. ASERRADEROTIK eramandako burdinak baten baten ekonomia familiarra hobetuko zukeen. Utzikeria? Inolaz ere ez, bertan luxuzko urbanizazioa egiteko proiektua aspaldikoa da. Gorraitzen lur eskasia antza. Urbanizazioarena Itoizko egiteko beste desarrazoietako bat, ibaiak urtero gainezka egiten baitu. Etorkizunean ere hala izan bedi.

Agurne Oronoz

Ikaslea

«Saritutako poesia bat-batean ateratako zerbait da»

10-13 urte bitartekoen artean Euskaltzaindiak eta BBK idazle gazteentzako antolatzen duten Resurreccion Maria Azkue poesia saria irabazi berri du Agurne Oronoz leitzararak. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikaslea da. Aurretik sekula idazten aritu gabea da, eta saria, berak idatzitako lana bezala, ustekabea izan da.

LOTSATIA ETA ISILA DIRUDI. Poesiarako duen trebezia ez du hitz egitean erakutsi. Bertsolariek ez bezala bat-bateko etorririk ez duen arren, badaki erantzuten. Hala ere, kazetariek egunotan atzetik dituen horretan, elkarrizketa azkar bukatu nahi izan zuen.

■ **Euskaltzaindiak eta BBKk ematen duten Resurreccion Maria Azkue poesia saria jaso duzu. Nola hartu duzu berria?**

Telefonoz deitu zidatenean asko harritu nintzen. Ez nuen espero deusengatik irabaztea eta oso pozik nago.

■ **Epaimahaiaren arabera, aurreko urteetan baino maila hobea izan omen dute aurtengo lanek. Zuk nola ikusi duzu zure burua?**

Niri nire poesia ez zitzaidan gehiegi gustatu. Segituan egindako lana da. Esan eta hurrengo egunerako egin nuen. Sandra Oiartzun irakasleak bultzatuta aurkeztu nintzen. Berak lehiaketak ekartzen dizkigu eta nora aurkeztu gomendatu.

■ **Hamahiru urte besterik ez dituzu. Nola hasi zinen idazten?**

Nik ez dut idazten. Ez dut ohi-turirik ez eta afiziorik ere, saritutako poesia bat-batean ateratako zerbait da. Lehiaketarako bakarrik idatzi nuen poesia.

■ **Narrazioak aurkeztea ohikoa da, eta, esaten denez, errazagoa. Zuk, aldiz, poesia aukeratu duzu. Zergatik?**

Poesia bat egitea ipuin bat idaztea baino errazagoa ikusten nuen nik, laburragoa zen eta egokiago iruditu zitzaidan. Poesiarik idatzi ez dudana arren, errazagoa iruditu zitzaidan. Segituan egin nuen, hurrengo egunean azterketak nituen eta ez nuen denbora gehiegirik. Deus pentsatu gabe idatzi eta atera zitzaidan.

■ **Laurehun eta lau narrazio eta poesia lanetatik zurea aukeratzeak zerbait adierazten du?**

Nik ez diot garrantzi handirik ematen. Ez dut uste sekulakoa denik. Espero ez nuen sari bat irabazi dut eta kito.

■ **Poesian zuk asko maite duzun mutil-laguna irudikatu duzu. Zergatik aukeratu duzu gai hori?**

Errazena iruditu zitzaidalako. Barrutik erraz eta azkar ateratako zerbait izan zen. Idatzitako lana nik irudikatuakoa eta sentitutakoa da. Horri buruz idaztea ezezaguna zaidan zerbaiten inguruan aritzea baino errazagoa


dela uste dut, eta halaxe egin nuen.

■ **Nola definituko zenuke egin duzun lana?**

Ateratzen zaidana idatzi dut, besterik gabe. Gero zerbait idazten saiatzen naizenean igual ez zait deus aterako.

■ **50.000 pezetako saria irabazi duzu. Zer egin behar duzu diruarekin?**

Ez dut ideiarik ere. Guztiek



• LUIS AZANZA

soslaia

gauza bera galdetzen didate. Ez dut inolako premia larririk eta ez dut pentsatu ere egin.

■ **Zer esan dizute ondoan dituzunek?**

Etxekoak eta nire lagunak ni baino gehiago poztu dira. Sariak bat-batean harrapatu nau, baina nire lagunak gehiago harritu dira.

■ **Emaitza ikusirik, idazten jarraituko duzu?**

Saria irabazi baino lehen ez nuen asmorik. Orain, lortutakoa ikusirik idazteko intentzioa badut. Nolanahi ere, ez dakit ideiak etorriko zaizkidan edo burutazio onik izanen dudana. Irakasleak balio dudala esaten dit eta idazten jarraitzeko. Beraz, oraingoz haren gomendioa jarraituko dut.

■ **Jean Haritzelhar, Euskaltzaindiko presidentea, lanen maila altua nabarmen-tzeaz gain, euskaraz idatzitako literatura klasikoa gehiago lantzeko gomendioa egin zizuen joan den osteguneko sari banaketan. Klasikoak ezagutzen dituzu?**

Lagunari eskaintako hogeita hamar lerroko poesiarekin irabazi du Agurne Oronozek R.M. Azkue saria. Otsailaren 13an 14 urte beteko ditu. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren maila ikasten ari da Leitzako ikastetxe publikoan.

Bere adineko gazte gehienek bezala, ez daki zer egingen duen etorkizunean. Ikasten jarraitzeko asmoa du, baina zer aukeratu duen ez du batere argi. Orain, geroa baino gehiago axola zaio lagunekin gustura egotea eta familiarekin gozatzea.

Idatzitakoak izan duen arrakasta ikusirik, idazten jarraituko du, eta lehiaketaren batera ere aurkeztuko asmoa badu. Hori bai, paper txuriaren aurrean eskolatik kanpo ikasten ari den gitarrak, solfeoak eta ingelesak uzten dioten denboran izkiriatu beharko du.

Egia esan, ez. Ez dut euskal literatura irakurtzen. Idazten jarraitzen badut baliteke horiek irakurtzen hastea. Dena den, ez naiz oso literatur zalea.

■ **Zure lagunak gustuko izan du zuk idatzitako lana?**

Irakurtzeko utzi nionean gustatu zitzaioala esan zidan lagunak. Gainerako lagunek ez dute oraindik irakurri. Irakasleari, berriz, ez zitzaion asko gustatu. Esan

zidan adin horretan idazten den gai arruntena dela nik aukeratuakoa, eta hobe nuela beste bat idaztea. Buruan beste bat idazteko pentsamenduarekin joan nintzen etxera, baina azkenean ez nuen astirik izan eta horrela utzi nuen. Eskerrak ez nuen aldatu, ohikoa bada ere epaimahaikoei gustatu zitzaion eta.

→ Irene Arrizurieta

Nafarkaria

Egunkaria

• ostirala • 1998ko otsailaren 6a

BEKARIO!

ZALDI ERDA



Nafar Kronika

Pello Goñi

Usainak

EZ DAGO ZALANTZARIK: AURRERA goaz etengabe geure burua-
ren ezagupenean. Monteano eta
Del Burgoren arteko eztabaida,
alegia, ez dakit zenbatgarren
mendetan zer ginen argitu digun
gutun-truke mediatiko hori ama-
tu den honetan, gure izaeraren
inguruko ezaugarri berriak defi-
nitzen ari dira, batzuk gainera
ofizialki definitu ere.

Natura, berde, ur, lur, zur, fres-
kura, lasaitasun, dotorezia, pago,
haritz, goroldio, ibai, barazki,
eguzki, aire, ibarbaso... Elementu
horiek guztiek duten usain-sor-
tak osatzen omen du Nafarroaren
urrina.

Niri, egia esan, hainbeste sen-
tsazio gozatsuk ez dit batere
usain onik ematen, hainbatetan
bakailao ustel-usaina hartzen
baitut lur honetan, Hamlet-en
Danimarkan bezalaxe.

Hortaz, eztabaidarako beste
lerro bat zabaltzen ahal dugu
hemen, betiko «euskal-uz euskal»
gaia aspergarriaren orde.

Nik ene ekarpen apala eginen
dut afera honetan eta ene tesiak
defenditzeko zaporean oinarritu-
ko naiz. Izan ere, zaporea eta
usaina estuki loturik egoten baiti-
ra.

Sukalde berriko artisten arabe-
ra, Nafarroaren zaporea bakaila-
oa, onddoak eta pikilloko pipe-
rrak hostopil itxuroso batean
behar bezala nahastuta erdiesten
da.

Formula berri honek pixka bat
gehiago hurbiltzen gaitu bakai-
lao-usainera. Falta duguna da
ustel dagoena. Hori aise lortzen
da. Aski da botereari arreta pittin
batez begiratzea edo, are erraza-
goa, J. Alonsok lehengo egunean
idatzi zuena irakurtzea. Gainera,
badakizue, arraina, freskoa bal-
din bada, agudo usteltzen da.

KONTZERTUAK

► **Iruñea:** Marrubi's Sound tal-
deak kontzertua eskainiko
du gaur, 23:30etan, Alboka
tabernan.

► **Erratzu:** Su ta gar taldeak *Agur
Jauna gizon txurtari* diskoa
aurkeztuko du gaur zortzi,
23:00etan, frontoian.

ZINEMA

► **Iruñea:** Karrikiri elkarteak an-
tolatutako zinemaldiko egita-
rauaren barruan, *Tasio* es-
kainiko da gaur Golem zine-
matokian, 20:00etan.

ERASKUSKETAK

► **Zangoza:** Benjamin Vigararen
margoak ikusteko aukera da-
go datorren otsailaren 20ra
arte Udaletxean.

► **Atarrabia:** Txotxongiloen mun-
dua' erakusketa zabalik dago
hilaren 14a arte Jubilatuen
elkartean. Lanegunetan
18:00etatik 20:00etara ikus
daiteke erakusketa, eta la-
runbat eta jaiegunetan
12:00etatik 14:00etara eta
18:00etatik 20:00etara.

► **Arteta:** Azkoien, Azagra, Falces
eta Kaparroson egindako
inauteri atso-agureak, mas-
karak eta osagarriak biltzen
dituen erakusketa dago zaba-
lik Etnografi Museoa hilaren
bukaera arte. Jaiegunetan
zein astez ikusi daiteke.

► **Iruñea:** Amnistiaren Aldeko Ko-
miteak errepresioaren aurka-
ko argazki erakusketa antola-
tu du Sanduzelaiko Txokoan.
19:30etatik aitzina ikus dai-
teke gaur eta asteburuan.

BESTEAKOAK

► **Iruñea:** Arrosadiako euskalte-
giak euskal afaria antolatu
du gaur, 21:00etan, San Fer-
min peñan. Txartelak 1.500
pezeta balio du eta AEK-ko
euskaltegiaren lor daiteke.

► **Iruñea:** Josu Zabala Basajaun
Iruñezar euskaltegiako ira-
kasle zenaren omenez, I.
Ipuin Lehiaketa antolatu du
Ikas Elkartek. Horren ingu-
ruko xehetasunak Iruñezar
euskaltegiaren bil daitezke.
Irabazlea nor den apirilaren
26an jakinaraziko da.

► **Iruñea:** «Atapuerca: nearden-

talen jatorria eta gizaki
modernoak» hitzaldia eskai-
niko du gaur Planetarioan,
20:00etan, Juan Luis Arsua-
ga ikertzaileak.

► **Iruñea:** Umórearen inguruko
hiru hitzaldi antolatu ditu
Nafar Ateneoak. Astelehene-
an Fernando Domeñok umo-
rera hurbilketa bat egitea

proposatuko du. Asteartean
Vicente Madoz psikiatrak
umorea eta osasuna izanen
ditu mintzagai, eta asteazke-
nean Umorea XX. mendeko
literaturan gaia jorratuko du
Angel Raimundo Fernandez
literatur katedradunak.
Hitzaldiak 20:00etan izanen
dira Iruñeko Kutxak Armada
Etorbidean duen egoitzan.

Harri Fiction

Urdirzo-Lacostini



**bertze batzuek goretsi ditzatela hire
edertasunak. nik ez diat ja ere erranen
hire gainean, ez baihaut saltzen, baby.**

